

KUTXA Enplegatuen Elkarte	XENDAZALETASUN atala
104. zka. 5 euskal hiribururen Zeharkaldi Handia	15. etapa/Ixona-Mendiola 2014-4-12/13

Adiskide xendazaleok:

Bide-tarte honen bigarren etapak Gasteiz hiriburuaren inguruetaraino eramango gaitu. Honela, gure lehenengo helburua mendikatera iristea izango da gero Okina herriaren inguruetaraino heltzeko.

Mendirantz abiatuko gara Añua mendatera iristeko, eta hilarri entzutetsua aurkituko dugu han; ez da erraza hark duen idazkuna irakurtzea igaro den denboragatik, jakina baita denboraren joanean "ia dena ezabatzen dela".

Kontatzen dutenez, inguru haietako basozaina egun batean Ixonara jaitsi zen pitxer bat ardo edan eta jendearekin berriketaldi bat egitera. Gero berriro abiatu zen mendira, baina elur-ekaitz handi batek harrapatu zuen eta gizona, paraje hura oso ondo ezagutu arren, ezin izan zen egoera hartatik onik atera. Idazkunak honela dio: *Aquí yace Bernabé Laydalga año 1985* (Hemen datza Bernabé Laydalga 1985. urtea).





Handik aurrera jarraitu, Izartza tontorretik oso hurbil igaro, eta izen bereko herrixkaraino jaitsiko gara, eta gero Okinara; hau Bernedo udalerrikoa izan arren, urruti samar dago eta zuzeneko komunikaziorik gabe errepedez.

Arabako hiriburuaren hegoaldera, Pagogan eta San Kristobal daude, Gasteiz Mendietan kokaturiko bi mendi apal, oraingoan zapalduko ditugunak. Lehenengoak perretxiko tankerako mendi-postontzia du, 1975-11-16koa, eta erpin geodesiko bat (420. mugarría). Bigarrenean dagoen mendi-postontzia 2006-7-10ekoa da.

Aurrerago mendikatea utziko dugu, Gasteizko mendateraino doana, eta iparraldera egingo dugu, gure helmuga izango den Mendiola herri txikiaren bila.

Animo, xendazaleok, natura zain dugu-eta!!!

Ibilaldia: Ixona-Mendiola

Beharrezko denbora		5,20	
Goranzko desnibel metatua		945 metro	
Beheranzko desnibel metatua		860	
Zeharretara egin beharreko distantzia		20.140 m	
 Ingurunea	1	 Orientazioa	2
 Joan-etorria	1	 Esfortzua	3

Irteera-lekua	Autobusen geltokia/Amara Plaza hotela
Aurkezteko ordua	07:25
Irteera-ordua	07:30
Bazkaria	Alai jatetxea
Prezioa	20 euro

Izena emateko azken eguna: 2014-4-10eko 12etan

Oharra: a/Ez badago gutxieneko parte-hartzailerik, irteera bertan behera geratuko da.
B/Eguraldiaren iragarpena larunbaterako txarra baldin bada, igandean egingo da ibilaldia.

Izen-emateak posta-helbide hauetan egin behar dira: alahuerta@kutxabank.es/jlurretabizkaia@kutxabank.es edo telefono hauetan: 943-00.14.69 (Alberto Lahuerta-Baterakuntza eta Kostuak-969)/943-00.12.36 (Lorenzo Urretabizkaia-Gipuzkoa Sarea-5700). Izena ematen duzuen guztioi, txangoari buruzko agiri edo dokumentazioa emango zaizue. Bazkariaren ondoren, ohiko opari-zozketa egingo da parte-hartzaile guztien artean.